



Gida azkarra

genero eta **EUSKARAREN**

erabilera egokia,

IRUDI INKLUSIBOAK

eta genero ikuspuntua

**ESTADISTIKA ETA
IKERKETETAN**





Hizkuntza sexista deuseztatzea oso garrantzitsua da, hizkuntzak, kultura erreproduzitzeko tresna den heinean, sekulako eginkizuna duelako pertsonen nortasun soziala eratzeko orduan. Hortaz, pertsona guztiak ikusarazi eta aintzat hartuko dituen hizkuntza inklusiboa erabiltzeak askotariko herritartasuna islatzen du.

Euskarak ez dauka genero gramatikalik: "neska altua / mutil altua" sintagmetan ez dago genero morfemarik. Hortik ondorioztatu da euskaraz ez dagoela aukerarik erabilpen sexistarik egiteko. Baina, euskararen badaude hainbat aspektu "generoz" tindatuta daudenak, **eta hauek dira:**

Generoa eta euskararen erabilera egokia

- ▶ **Hizkuntzaren erabileran egon daitekeen sexismoari erreparatzeko, estrategia erraz bat dago eta kasu askotan ondo funtzionatzen du: inbertsioaren araua. Susmagarria den hitza edo esaldia beste generoari aplikatu diezaiozun ea egokia iruditzen zaigun.**

↳ "Gazteen aisialdia errutina hutsa da: telebista ikusi, tragoak hartzera joan, neskekin ligatzen saiatu..."

↳ **Inbertsioaren araua aplikatuta: "Gazteen aisialdia errutina hutsa da: telebista ikusi, tragoak hartzera joan, mutilekin ligatzen saiatu..."**

▶ Generoa generorik gabeko hizkuntzan

● GENEROA ADITZETAN: HITANOA

Hitana erabiltzeak eskatzen du hiztunak solaskidearen generoa kontuan izatea. Solaskidea ez denean genero bakar batez osatutako taldea edo nor den ez dakigunean.

EZ	BAI
Erreatzeari utzi iezaio k	Erreatzeari utzi
Musika gustatzen zaik	Musika gustatzen zaizu
Ekar ezak hire proposamena	Ekarri hire / zure proposamena

● GENEROA DAUKATEN IZENAK

Animaliak izendatzeko: behorra eta zaldia, ardia eta aharia, ahuntza eta akerra, oiloa eta oilarra, .. **Pertsonak izendatzeko:** gizalaba, emakumea, emakumezkoa, andrea, andregai, emaztea, neska, ama, alaba, gizasemea, gizonetzkoa, senarra, senargaia, mutila, jauna, aita, semea, ..

- Desegoki erabiltzen dira maiz bi genero izendatzeko, femenino eta maskulinoaren elkarte erabili behar da.

EZ	BAI
Zenbat seme dituzu?	Zenbat seme-alaba dituzu? / Zenbat ume dituzu?
Eskolako mais guztiak gonbidatuta daude	Eskolako mais-maistra / irakasle guztiak gonbidatuta daude
Zure aitek etorriko dira?	Zure gurasoak etorriko dira?; zuen aita-amak etorriko dira? (Gurasoak bi aita ez badira)
Probintziako alkate jaun guztiak erantzun diote deialdiari	Probintziako alkate jaun-andre guztiak erantzun diote deialdiari

- **Generoerik gabeko izenak** entzutean edo irakurtzean, nortaz ari den jakin gabe, zer irudi etortzen zaigu gogora, emakume bat edo gizon bat?

Erizaina, igeltseroa, idazkaria, jostuna, artzaina, haur-zaina, telefonista, sare-konpontzailea, garbitzailea, emagina, suhiltzailea, iturgina, zurgina, urpekaria, ugazaba, abeltzaina...

Gerta daiteke guk geuk mentalki generoa jartzea. **Beraz, generoa adierazi nahi badugu, zehaztu beharko dugu:**

Andre euskaltzaina, jaun euskaltzaina; emakume zuzendaria, gizon zuzendaria; neska urpekaria, mutil urpekaria...

- **“-sa” bukaerako femeninoak**

EZ	BAI
Udaletxeko langile-langilesa guztiak	Udaletxeko langile guztiak
Edurne Perez alkatesak	Edurne Perez alkateak / alkate andreak
Aktoresa onenaren saria	Emakumezko aktore onenaren saria

- **Populazioa, irakasleria, pertsonak**

EZ	BAI
Programa populazio erretzailearentzat	Programa erretzaileentzat
Bosgarren mailako irakasleria	Bosgarren mailako irakasleak / mais-maistrak
pertsona ijitoak / pertsona desgaituak	ljiitoak / desgaituak

► “GIZONA” ERABILERA ESPEZIFIKOA ETA “GIZONA” HITZ ELKARTUETAN

- “Gizona” modu orokorrean edo generikoan (emakumeentzat ere) erabiltzea desegokia da.

EZ	BAI
Non daude ideia handiak eta sakonak dituzten gizonak ? Non daude herri honek behar dituen politikariak?	Non daude ideia handiak eta sakonak dituzten personak / gizakiak ? Non daude herri honek behar dituen politikariak?

- “Gizona” hitz elkartuetan.

Egokia da esanahi espezifikoa badauka, gizonekin lotuta: *lege-gizona, enpresa-gizona, industria-gizona, kultur gizona, elizgizona, plazagizona, itsasgizona...*

Erreferentzia egiten badio talde anitz bati edo ezagutu gabeko generoko pertsona bati: *legelaria, enpresaria, industrialaria, kultur-pertsona, eliz-pertsona, plaza-pertsona, itsas-langilea...*

EZ	BAI
Esperientziaren bortxaz, enpresa-gizonak ohartu dira ...	Esperientziaren bortxaz, enpresa-jendea ohartu da / enpresa gizon-emakumeak ohartu dira ...
Zertan ibiliko ginateke, medikuak, injineruak, enpresa gizonak , abokatu, antropologo edota politikariak behar den bezala heziko ez bagenitu?	Zertan ibiliko ginateke, medikuak, injineruak, enpresa jendea / enpresa gizon-emakumeak , abokatu, antropologo edota politikariak behar den bezala heziko ez bagenitu?

- Genero-identitateak eta familia-aniztasuna kontuan hartu behar direnean, inprimaki edo eskaeretan hirugarren lauki bat sartu behar da.

IZEN-ABIZENAK	SEXUA - GENEROA		
	Emakumea	Gizona	Ez-binarioa
IZEN-ABIZENAK	Arduraduna(k) (aitak, amak, tutoreak,..)		

Irudi inklusiboak

- **Pertsona oro identifikatua eta ordezkatua sentiaraziko duen lengoia eta irudi ez sexista eta ez diskriminatzaileak erabiliko ditugu, estereotipoak erabat baztertuz.**
- **Ikonoak edo objektuak erabiltzea baliagarria izan daiteke estereotipo sexistak edo etnozentrismak ekiditzeko.**
- **Erabiltzen diren irudietan jasotzen diren pertsonen aniztasuna oso garrantzitsua da. Aniztasun kulturala, funtzionala, sexu eta genero aniztasuna, adin eta jatorri ezberdinak,..**
- **Ilustrazioa alternatiba ona izan daiteke, imajinario inklusiboagoa adierazi ahal izateko.**

Genero ikuspuntua estatistika eta ikerketetan

Estatistikak eta ikerketak politika publikoak berdintasuneruntz berbideratzeko ezinbesteko tresnak dira, genero ezberdintasunak eta diskriminazioak ikusgarri egiten dizkigutelako.

Hauek dira genero ikuspegia txertatzeko irizpideak estatistika eta ikerketetan:

- **Edozein estatistika, ikerketa edo datu bilketa egiten dela, sexu-aldagaia txertatu behar da.** Udaletik gauzatzen den edozein datu bilketak sexuaren arabera banaketa jaso behar du (parte hartzea, dirulaguntzak, herritar onuradunak, jasotako eskaintzak, emandako bekak, egindako kontratuak...)
- **Sexu-aldagaia transbersalki txertatzea.** Aldagai denak sexuaren arabera aztertu behar dira.

- **Genero analisia informaziora hurbiltzeko ikerketa arlo gisa erabili behar da.**
Sexua: analisirako aldagaia da eta biztanleriarekiko edo populazioarekiko emakume eta gizonen kopurua edo portzentajea erakusten digu.
Generoa: analisirako kategoria da, desberdintasun soziokulturalei eta generoen arteko jabetza-menpekotasun harreman hierarkiakoei erreferentzia egiten baitio. Genero analisiak desberdintasunen eta bazterkerien jatorria eta etengabeko errepikapena nola gauzatzen den ulertzen laguntzen digu.
Genero analisia egiterako orduan kontuan izan beharreko neurriak:
Genero-rolak aztertzea, baliabideen eskuragarritasuna eta kontrola emakumeen eta gizonen artean desberdinak direla ikusaraztea, eta, azkenik, emakumeen eta gizonen beharrak, mugak eta aukerak aztertzea.
- **Operazio estatistikoetan indikadore berriak ezartzea eta barneratzea,** emakume, gizon eta hala badagokio, ez-binarioak diren pertsonen balore, rol, egoera, baldintza, xede eta hauen errealitatearekiko interakzioaren ezagutza.
- **Datuen ustiapenean isuri iturriak ekiditzea:** estatistikaren estaldura berrikusi, zabalera handiko lagina diseinatu sexuaren arabera bereizita egon dadin, genero arloan formatzea hizkera, pertzepzioak eta estereotipo sexistak saihesteko, eta abar.
- **Emakume, gizon eta hala badagokio, ez-binarioak diren pertsonen egoera, baldintza, jomuga eta behar ezberdinak ezagutu ahal izateko datuak behar bezala lantzea.**
- **Estatistika eta ikerketa berriak egitea errealitate berriak ikusgarri egiteko.**
- **Lengoiaren erabilera ez sexista prozesu osoan zehar izan behar da kontutan.**

Gida azkar hau Berdintasunerako Zerbitzuak, 2020ko urtarrilean, egindako “Instrukzioa: Generoa eta euskararen erabilera egokia, irudi inklusiboak eta genero ikuspuntua estatistika eta ikerketetan Vitoria-Gasteizko udalean” testuaren laburpen bat da. Dokumentu osoa udalaren webgunean kontsulta dezakezue: www.vitoria-gasteiz.org/berdintasuna